

DIRU-SARRERAK (iturriak)

- Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Bezero arrunt bat 15€ ordaintzeko prest egon behar da eskaintzen ari garen zerbitzuaren truke eta janari eta edarien truke. Bi ordaintzeko modu eskuragarri eskeintzen dizkiegu: metalikoki eta kreditu txartela bidezkoa. Diskoteka erakargarriagoa izateko, saldutako lehenengo 100 sarrerak 9€-tan salduko ditugu. Hau da, 6€ko beherapen bat egingo diegu lehenengo 100 bezero azkarrenei.

Flashback diskoteka gaueko 12tan irekiko da eta goizeko 6etan itxiko da. Zehazki, asteko ostegun (unibertsitariora den pertsonentzat), ostiral, larunbat eta jai-egunetan irekiko dugu, egun hauetan zerbitzua erabiliagoa izango baita nerabeen artean festaren bat ospatzeko. Probabilitatearekin ere jokutzen dugu eta pertsona bakoitzaren izaera ere kontuan hartzen dugu badakigulako ez ditugula bezero kopuru berdina izango egunero.

Urtero, gure kalkuluen arabera, 720.000€ko etekin ekonomikoa irabaziko dugu gehienez. Gure ustez oso errentagarria ateratzen den negozio bat da kontuan izanda lehen 100 sarreretan beherapenak eta bost bazkide garela. Bidezkoena izango litzateke dirua berdintsu zatitzea denen artean.